

ANDOAINERA DONOSTIATIK, N1ean BARRENA

- 1.- 447B irteeraren ondoren. **(2. ref)**
ANDOAIN
URNIETA GI-131
Km. 1 baino lehen, **447A irteeran atera. (3. ref)**
ANDOAIN
- 2.- Bihurgunean bertan, "ITSASMENDI Karabanak"-en parean, ezkerretara egin, SORABILA **(4. ref)** dioen seinaleari jarraituz, eskuinetara BORDA BERRI industrialdea **(5. ref)** utziz.
- 3.- 100 m. baino lehen, ezkerretara aldapa handi bat hartu eta asfaltozko bidezoruaren orde zementuzkoa izango dugu.
Egurrezko seinale bat dago: USURBIL **(6. ref)**, abereentzako ate bikoitz baten ondoan.
- 4.- Hurrengo sahiesbidean eskuinerantz egin. Kasurik ez egin ezkerretara dagoen SORABILLA seinaleari **(19. ref)**
- 5.- Berehala ezkerretara egiten duen lehenengo bidea hartuko dugu. Gutxigorabehera, 3 km falta zaizkigu.
- 6.- **OHAR GARRANTZITSUA:** Aurrerantzean zementuzko bidezoruan ibiliko gara (eta ez harrizintzarrezkoetan eta ezta basoko bideetan ere). Ondoko seinaleak aurkituz joango gara.
 - GARATE, BELKOAIN. Goikaldean, harri baten gainean gezi txuria dauka. Alboan, USURBIL BURUNTZALDEA **(7. ref)** dioen egurrezko seinalea dauka.
 - Errepidearen eskuinaldea KAROBIaren seinalea.
 - Egurrezko seinaleak: BELKOAIN, BIDEA edo PISTA **(8. ref)**.
 - Eskuinaldean baserri bat utziko dugu (malda txiki bat amaitzen den lekuan). Ezkerretara beste karobi bat ikusiko dugu **(9. ref)**. Orduantxe, igo behar dugun aldapa handi bat hasiko da.
 - Ia guztiz igo dugunean, telebista antena baten albotik igaroko gara (horman AHT Ez du margoturik). **(10. ref)**
 - Errepidearen eskuinaldean dagoen eta ANDOAIN **(11. ref)** jartzen duen seinale baten ondotik pasako gara.
 - Berehala ezkerretara egingo dugu; metalezko ate berdea igaro, eta bertatik GARATE baserria ikusiko dugu.